

HEZKUNTZA IKUSKARITZA KANPO EKIMENA BATZORDEA

6

URTARRILA 2019

¿BADAKIZU...

...zer dioen
ikerketak ikus-
karitzak gizar-
tean duen era-
ginaz?
...zein diren
ikuskarientza-
nako konfian-
tzaren 3 eragi-
leak?
...zer den gu-
retzat berrikun-
tza?

AGURRA

Lankide agurgarriok:

Kanpo Ekimen ale honekin 2019. urteari ongietorria egin nahi diogu, komunikabide hau baliagarri izango zaizuelakoan egiten ari garen jardueren berri izateko.

Argitalpen honetan, 2018ko azaroaren 15 eta 16an eginiko SICIren biltzarraren edukia azaltzen dizuegu. Maite Ruiz eta Rosa Aliaga lankideak izan ziren bertan Euskal Herriko Ikuskaritzaren ordezkari gisa, eta oso proposamen interesgarriak ekarri dizkigute, txostengileei zein txostenen edukiei buruz. 2018. urtean zehar, SICI erakundeak ikuskaritzak gizar-tean duen eragina landu du, eta, 2019. urterako, ikuskaritzaren jarduera berritzaileei buruzko ikerketa egin nahi du.

Ale honetan, zuen zonaldean dagoeneko entzuna izango duzen *job-shadowing* izeko jardueraren berri ere emango dizuegu.

Agur bero bat.

Jose Angel Ayucar, Ikuskari Nagusia.

EDUKIA:

1- AGURRA

2- SICI-REN BILTZA-
RRAREN LABURPENA

3- TXOSTEN NAGUSIAK

4- BATZARRAREN ON-
DORIOAK

5- JOB-SHADOWING

6- KONTAKTUA



2- SICI-REN BILTZARRAREN LABURPENA

SIClren 23. Biltzar Nagusia Belgraden (Serbia) burutu zen, 2018ko azaroaren 15etik 16ra. Jardunaldiaren ondoren, koordinatzaile nazionalen bilera egin zen. Europako 27 herrialdeetako 65 ikuskari bertaratu ziren (Albania 2, Alemania 7, Austria 2, Belgika 5, Bulgaria 4, Zipre 1, Eskozia 2, Eslovakia 1, Estonia 1, Finlandia 1, Frantzia 7, Ingalaterra 5, Irlanda 2, Ipar Irlanda 1, Kosovo 4, Lituania 2, Luxenburgo 1, Malta 1, Montenegro 1, Norvegia 2, Herbehereak 3, Portugal 1, Txekiar Errepublika 1, Errumania 2, Serbia 2, Suedia 2 eta Euskal Herriko 2).

Hauxe izan zen EGITARAUUA:

2018ko azaroaren 14a, asteazkena

09.00 – 18.00 SIClren Batzorde Betearazlearen bilera

2018ko azaroaren 15a, osteguna

SICI-REN BILTZAR NAGUSIA

9:00 – 9:30 - Inaugurazio ofiziala

9:30 – 10:05 - Serbiako ikastetxeetako kanpoko ebaluazioa: garapena eta eragina (A)

10:05 – 10:40 - Ikuskaritzaren eragina: Zer dio ikerketak? (B)

10:40 – 11:00 - SIClren txostenaren aurkezpena, ikuskaritzaren eraginari buruzkoa (C)

11:00 – 11:30 - Galderak

11:30 – 12:00 - kafea

12:00 – 13:00 - Eskualdeetako taldeen bilera

13:00 – 14:30 - Bazkaria

14:30 – 16:30 - SICI erakundeari buruzko bilera (D)

20:00- Afaria

2018ko azaroaren 16a, ostirala:

9:30 – 9:45 - 2019ko lehentasunezko gaiaren aurkezpena: Ikuskaritzako praktika berritzaileak (E)

9:45 – 10:15 - Europako Batzordeak Europako ikastetxeetako berrikuntzaren babesari buruz eginiko ikerketaren aurkikuntza nagusiak (F)

10:15 – 11:30 - Ikuskaritzaren praktika berritzaileei buruzko mahai-ingurua

11:30 – 12:30 - Hamaiketako

12:30 – 15:30 - koordintzaile nazionalen bilera.

15:30 - Amaiera

Erabilitako materiala SIClren webgunean aurki daiteke: <http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/General-Assembly/General-Assembly-2018,-Serbia>

Gaztelaniaz ere kontsulta daiteke jardunaldiaren memoria R- EMINSPECCIÓN-KANPO EKIMENA BATZORDEA – SICI BELGRAD helbidean; informazio zehatzago eta osoagoa dago.



3- TXOSTEN NAGUSIAK

A- SERBIAKO IKASTETXEETAKO KANPO-EBALUAZIOA: GARAPENA ETA ERAGINA

Herbehereetako Gonne van Amelsvoort ikuskariak Serbiako Gordana Capric ikuskariarekin batera, 2009tik eta 2011ra bitartean gauzatu zen ikastetxeen kanpo-ebaluazioari buruzko proiektu aldeaniztun baten garapena azaldu ziguten. Proiektu horren izenean parte hartu zuten Serbiako Hezkuntza Ministerioak eta Hezkuntzaren Kalitate eta Ebaluaziorako Institutuak, Herbehereetako Hezkuntza Ministerioak eta Hezkuntza Ikuskaritzak, SICI erakundeak (Eskozia, Ingalaterra, Alemania eta Herbehereetako ordezkariak) eta Munduko Bankuak.

Proiektuaren garapenean, honako alderdi hauek jorratu ziren: barne- zein kanpo-ebaluazioaren definizioa, kanpo-ebaluaziorako esparru baten sorrera, irizpide eta adierazleen garapena, ikasgelako behaketa egiteko (dirudienez, luze eztabaidatu zuten irakasleari behaketa egin eta berehala informatzeari buruzko komenigarritasunaz, eta eztabaida horien ondorioz, Herbehereetako ikuskaritzaren ordezkariak bere iritzia aldatu zuen, izan ere ohartu zen behaketa egin orduko informazioa ematea askoz hobea zela). Benetako eskolen grabaketak erabili zituzten ebaluazio horiek egiteko. Saio bakoitzaren behaketak sortzen zituen iritzia alderatu eta adostasuna lortzeko denbora ere hartu zuten.

Prestakuntza-jarduera guzti horiek SICIren webgunean aurki daitezke: <http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Training-Activities/Serbia-2010> (ikusi bereziki: ppt *Feedback to teachers*) eta <http://www.sici-inspectorates.eu/getattachment/0f82d42c-6160-413f-b8d4-967dd5fc59f7>; edukiaren interesa kontuan izanik, irakurketa gomendatzen dugu.

2012tik 2018ra bitarteko ikasturteetan ikastetxeetako ebaluazioari buruzko beste proiektu bat gauzatu da. Horretarako, 40 ebaluatzaile-talde sortu ziren; lehen hezkuntzako 1100 ikastetxe inguru, bigarren hezkuntzako 414 eta haur-hezkuntzako 126 ikastetxe ebaluatu dira.

Proiektuaren eragina neurtu da eta horretarako, Likert eskalaren bidez, irakasleentzako 58 galdera eta zuzendarientzako 60 galdera edo item erabili dira. Ikerketa horren helburua izan da, batetik, hezkuntza-eragile nagusiei ebaluazioan erabiltzen diren irizpide eta prozeduren berrikusketan parte hartzeko aukera bat ematea, eta, bestetik, ikastetxeetako kanpoko ebaluazioaren eragina aztertzea. Guztira, 289 zuzendarik, 368 irakasle-lagunek eta 5.658 irakaslek erantzun zituzten galdeketak. Galdeketen erantzunak goian aipatutako jardunaldiari buruzko memorian aurki ditzakezue (R - EMINSPECCIÖN).



B- IKUSKARITZAREN ERAGINA: ZER DIO IKERKETAK?

Erresuma Batuko Open Universityko Jaqueline Baxter irakasle-lagunak hezkuntza-ikuskaritzaren legitimazioaz, konfiantzaz eta menpekotasunik ezaz hitz egin zigun.

Ikuskaritzak, gaur inoiz baino gehiago, iritzi publikoaren aurreko legitimazioa lortuko badu, hezkuntza-hobekuntzaren eragile gisa ikusia izateko beharra du. Hori ez da automatikoki lortzen; aitzitik, honako alderdi hauen menpe dago:

- 1- Ikuskaritza sistemen zuzeneko eta albo-eraginak (sistemaren eskakizunak).
- 2- Komunikabideekiko harremanak eta haiek ikuskaritzari buruz duten ikuspegia.
- 3- Ikuskaritzak duen hospe publikoa ; nola ikusten dituzten eta eskaintzen duten konfiantza-maila.
- 4- Nori ematen dioten informazioa eta non kokatzen diren herrialde bakoitzeko hezkuntza-sisteman.

Lehen Hezkuntzako 150 ikastetxetan eta Bigarren Hezkuntzako 170ean eginiko "7 erregimenetako ikuskaritzen albo-eragina" izeneko ikerketak (Jone et al, 2017) Ingalaterra, Herbehereak, Irlanda, Errepublika Txekiarra ,Austria, Suitza eta Suediako zuzendaritzetako autotxostenak jasotzen ditu. Ingalaterran eta Herbehereetan ikuskaritzak presio handia eragiten du; Suedian, Irlandan eta Errepublika Txekiarrean ikuskaritzaren jarduerak presio ertaina sortzen du, eta Suitza eta Austrian behe mailako presioa eragiten du.

Ikerketaren bidez jakin nahi da, Europako 7 herrialde horietan, zenbateko eragina duten ikastetxeak ikuskatzearen nahi gabeko ondorioek eta zenbateko eragina duen presio horrek nahi gabeko ondorioak sortzeko. Lotura argia dago presioa areagotzearen eta curriculumaren eta irakasteko instrukzioak murriztearen artean. Presioa handitzen den neurrian handitzen da presio horrek curriculumean eta irakaskuntza-estrategietan ikuspegi berri bat eragin duela dioen irakasle-kopurua (Ingalaterran eta Herbehereetan % 50, %10 edo gutxiago Suitzan eta Austrian)

Ingalaterran, hezkuntza-arloan espezializatutako kazetarien ibilbideak eragin handia du komunikazio-motan. Suedian informazio emateko modu ofizial bat dago, zeinak informatzeko baimena eta informazio-lekua murrizten dituen. Eskozian prentsa espezializatuarekiko konfiantza handia dago.

Gurasoei eginiko galdeketa baten emaitzak bildu ziren 2017ko Offsted-en txosten batean; bertan argi azaltzen da zergatik batzuentzat ez diren fidagarriak Offsteden txostenak:

- Irakasleen lana desberdina da ikuskapenean. (% 52)
- Ikuskapenak laburregiak dira irakasle-lanaren irudi esanguratsu bat eskuratzeko. (%44)
- Ez zaie alderdi garrantzitsuenei erreparatzen. (% 43)
- Aurrerapen handiz jakinarazten da ikuskaritzaren bisita; ondorioz, aurrez presta dezakete. (% 37)
- Zenbait ikuskapen egiten dituzten pertsonak ez dute iritzi fidagarri bat emateko beharrezko gaitasun eta ezagutzarik. (% 30).
- Txostenak maiz zahar samarrak dira, eta ondorioz, ez dira esanguratsuak. (% 20)



Ikuskaritzarekiko konfiantza izateak berarekin dakar ikuskari, prozesu eta emaitzekiko konfiantza. Hobetzeko gaitasuna eraikitzeko, kontu-ematearekiko konfiantza egon behar du; baina, txostengileak bere buruari galdetzen dio nolako kontu-emateaz ari garen. Ikuskapena garatzen den lekuko kulturaren baitan dago.

Konfiantza dagoenean hobeto jokatzen da. Hoy, Tschannen-Moran (1999) eta Cernak ikusi zuten konfiantza maila handiko ikastetxeetan familien inplikazio maila ere handia zela, eta bai zuzendaritzaren eta irakasleriaren arteko, bai irakasleen eta gurasoen arteko lankidetzeta-moduak zuzenagoak zirela. (Ehren, Baxter and Patterson, 2018).

Zenbait ikerketek ere erakusten dute konfiantza-maila handiak eginiko lanaren gogobetetze-maila areagotzen duela irakaslearengan, eta nekea murriztu (Hoy eta Tschannen-Moran 1999, Friedman, 1991), kanpoko aldaketa eta erreformekiko onarpen maila eta inplikazioa handitu (Seashore-Louis, 2007), eta, garrantzitsuen dena, eskolako emaitzak hobetzen dituela (Bryk eta Schneider, 2002, Forsyth, Adams eta Hoy 2015; Tschannen-Moran eta Hot 2000).

Ikuskaritzak mugen arteko zubi lana egin behar du: erakundearen (ikuskaritza) izenean diharduen pertsonaren (ikuscaria) lana konfiantzan oinarritzen da. Konfiantzak kostua murrizten du; zenbat eta konfiantza gutxiago hainbat eta garestiago gertatzen da transakzioa. Horrek esan nahi du, ikuskaritzari dagokionez, konfiantza gutxiko gizarteetan ikuskaritzak konfiantzarik eza gainditzeko estrategiak garatu behar dituela (Mayer et al, 1995, "modelo de habilidad, benevolencia e integridad").

Hona hemen ikuskarienganako konfiantza sortzeko hiru eragile:

Gaitasuna: ikuskariak ikastetxeari buruz duen ustea edo itxaropena, bere lana modu arrakastatsuan egiteko gaitasunari buruz.


Borondate ona: ikastetxeak ikuskaritzaren interesak eta premiak kontuan hartzen dituelako itxaropena.

Zintzotasuna: ikastetxeak zuzen jokatzen duela eta bere printzipioak onargarriak direlako itxaropena.

Konfiantzak benetako kontu-ematea dakar, ikastetxeak errazago azalduko baititu bere ahuleziak. Konfiantza dagoenean, ikuskaritzaren txostenak ez dira hain gatazkatsuak izaten. Eragileek ikusten badute kontu-ematea legitimoa eta zuzena dela, konfiantza maila areagotu egiten da eta auto egokitzea eta hobetzeko neurrien inplementazioa sustatzen du.

Honako galdera hauek egin behar dizkiogu geure buruari:

1. Nola kontrolatzen ditugu gure ikuskatzeko estiloaren albo-ondorioak?
2. Zer azaltzen dugu komunikabideetan? (eta ikuskari bakoitzak bere zonaldean?)
3. Nola ikusten gaituzte jendeak eta irakaskuntzako gainerako profesionalak? Badugu kode etiko eta jokabide-koderik?
4. Gure prestakuntza-programak zenbateraino sustatzen du etengabeko garapen profesionala eta elkarrizketa profesionala?





C- SICIK IKUSKARITZAREN ERAGINARI BURUZ EGINIKO TXOSTENAREN AURKEZPENA. ZER ERAKUSTEN DIGU IKERKETAK?

Chantal Manes-Bonisseauk, ikuskari frantsesa eta SICiko presidentea denak, bere hitzaldian azaldu dizkigu SICiko lan-taldeek 2018an eginiko lanaren emaitzak. Abiapuntutzat galdera hau planteatu zuten: zer balio-erantsi gehitzen die irakaskuntzak ikastetxeei kanpo-ebaluazioa egitean? Nola neur dezakegu? Nola parteka ditzakegu gure hausnarketak? .

2018an hiru lantegi garatu dira, eta hemen, Belgraden, egingo da emaitzen lehen aurkezpena . Emaizta horiek urtarrilean argitaratuko dira, SICiko kideen artean banatu ondoren.

ZER DIO IKERKETAK IKUSKARITZAREN ERAGINARI BURUZ? Gutxi dira eginiko ikerketak, eta oso herrialde gutxitan egin dira. Arduradun politikoek lortutako emaitzei erreparatzen diete. Berriki eginiko azterlanak (Ehren, Baxter, UE, Twente University) hasiak dira eragin hori onartzen. SICiko kideentzat garrantzizkoa da ikerlariekin lan egitea eta harremanak sortzea.

NOLA NEURTZEN DA HERRIALDEETAKO ERAGINA SICI-KO HERRIALDE KIDEETAN? Hurbilketa enpiriko baten bidez, arduradun politikoengan eta iritzi publikoan duen eragina aztertu da:

- Arduradun politikoak: Ez dago irizpiderik ezta hurbilpen zientifikorik; garrantzia ematen zaie ikuskaritzaren urteko edo gaikako txostenei; eragina modu sistematikoan ebaluatzen zailtasunak daude; errazagoa da hainbat txostenen eragina neurtzea; badira hainbat aldagai: denborak, premia, interesgunea, babesleak, ...
- Iritzi publikoa: denboran zehar aldatu egin da.

Badago ikuspegi sistematikoago bat eskolako emaitzetan duen eragina neurtzeko, ikuskapenen aurretik eta ondoren azterlanak edo galdeketa eginez.

Eskolako emaitzetan duen eraginaren kalitatea eta iraunkortasuna funtsezko bi faktore baitan dago:

- Ikuskarrien zein haiek jarraitzen dituzten prozesuen profesionaltasuna,
- Eta ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasleen gaitasuna ikuskapenen emaitzak jaso eta ulertzeko, bai eta onartu eta haiei buruzko hausnarketa egiteko ere. Adibide aipagarri gisa: Irlanda, Malta eta Eskozia.

ZEIN DIRA ERAGINA HOBETZEKO BALIZKO SUSTATZAILEAK? ZER JARDUNBIDE EGOKI PARTEKA DITZAKEGU?

1- Hezkuntza-eragileak inplikatzeko: Herbehereetako eskolak eta eskola-kontseiluak; Eskozia eta galesko ikuskaritza-elkarteak; elkarrizketa profesional hobea.

2- Profesionaltasuna prozesuetan eta metodoetan: bi ikuskarik leku berean gauzatzen badute ikuskaritza. Erabaki koherenteak hartzen dituzte?

3- Komunikabide, arduradun politiko eta iritzi publikoarekin komunikazio-estrategiak ezartzea.

BEHIN-BEHINEKO ONDORIOAK

- Ikuskaritza berehala egokitzen ari da ebidentzietan (emaitzak) oinarrituriko hezkuntza-sistemen eskaerei erantzuteko eta bere eraginkortasunari buruzko datuak emateko.
- Adierazle objektiboen zerrenda bat egitea zaila bada ere, ezin da ikuskaritzaren eragina gutxietsi. Ikastetxeetako zuzendaritza, tokiko agintari eta arduradun politikoek onartzen dute ikuskaritzaren eskarmentua eta gomendioak aldaketa bideratzeko unean inspiratzailek direla.
- Beharrezkoa da tutoretza hobetzea, eta Europako zenbait ikuskaritzatan dagoeneko hainbat tresna prestatu eta probatu dira: hezkuntza-eragileek ikuskaritzari ematen dioten informazioa hobetzeko eta barne kalitatearen kudeaketako prozesuak indartzeko sortuak izan dira.

D- SICI ERAKUNDEARI BURUZKO BILERA

Besteak beste, eskualdeko taldeen jardueraren berri eman zen:

- Dublingo taldea (2017ko abendua): ikuskaritzaren txostenen fidagarritasuna eta ikuskaritzak ikastetxeetan duen eragina bermatzeko moduei buruzko gaiak, eta curriculumaren ikuskapenari buruzko hainbat herrialdetako ikuspegiak.
- Belfastoko taldea (2018ko ekaina): ikuskapen-prozesuaren osagai gisa, irakaskuntza eta ikaskuntzaren kalitatea ebaluatzeko irizpideak identifikatzea eta baita, hezkuntzaren kalitatea eta funtzionamendua gainbegiratzeari dagokionez, ikuskaritzaren zeregina ere.
- Utrechtoko hizkuntza alemaneko taldea (2018ko uztaila): Herbehereetako ikastetxeetako ebaluazioa.

SICI erakundeko kideen arteko lankidetzajarduerak:



- Herbehereak eta Flandes: erakundeen arteko harremanak.
- Herbehereetako kideek Ukrainan, Frantzia eta Alemanian duten ikuskaritza-sistema berriari buruzko hitzaldiak eman zituzten; Europako hainbat ikuskaritzatara eginiko azterketa-bisitaldiaren barruan, Estoniako ikuskapen batean parte hartu zuten, eta, era berean, bere herrialdean ere hartu zituzten hainbat ikuskapen.
- Suediako ikuskaritzak gonbidatu frantsesak izan ditu, eta, gaur egun, Norvegiarekiko lankidetzaproiektu batean parte hartzen ari da.
- Portugalek Austriako lankideen bisita jaso zuen, ERASMUS+ KA1 programaren babesean.
- Euskal Herriak, 2018ko ekainean, ikastetxeetako kanpo-ebaluazioari eta autoebaluazioari buruzko prestakuntza-jardunaldiak antolatu zituen, SIC erakundeko hainbat kideekin batera (Irlanda, Estonia eta Portugal).
- Gaur egun, Herbehereekin, eta Estonia, Lituania eta Eskoziarekin komunikazioari buruzko proiektu bat martxan dago.

E- 2019KO LEHENTASUNEN GAIAREN ZABALKUNDEA: IKUSKARITZAKO JARDUERA BERRITZAILEAK

2019rako proiektu berri horretan aurkeztu diren helburuak honako hauek dira:

- Kalitatearen berme-mekanismoak ezartzea eskola-aldaketarako mapa batean (autonomia, ebidentziak jasotzea, inklusioa eta emaitzak, ikasle bakoitzaren beharrak,...)
- Oreka aurkitzea ikastetxeen kontrolaren eta babesaren artean, erabaki politikoaren ebaluazioaren eta politikoei ematen zaien aholkularitzaren artean.
- Ikuspegi on bat definitzea, ikastetxeak eta irakaskuntza-prozesua ebaluatzeko.
- Gure kanpo-ebaluatzaile lanaren eragina areagotzea.

Horrek guztiak erronka bat dakar eta zalantza hauek sortzen dira: nola definitzen dugu "berrikuntza"?, nola esperimentazioa?. Zergatik berritu behar dira ikastetxeak?. Zein dira ikastetxeetan eta kanpo-ebaluazioarako metodoetan (lankidetzak, esperimentazio-plataformak, eragile guztien parte-hartzea, lidergoaren banaketa) berrikuntza sustatzeko erarik onenak?. Nola ebalua daiteke jardueraren berritzaileen eragina?. Sor liteke Montenegro berrikuntzaren adierazlerik?. Zer saiakuntza eta esperientzia parteka ditzakegu? Nola erabili ditzakegu ondo ikastetxe- eta ebaluazio-berrikuntzari buruzko ikerketak (Looney, 2009: *Assessment and innovation*; Hopkins, *Networks of innovation*; Hargreaves, 2003)?

Hiru lantegi antolatuko dira, eta bakoitzean alderdi bat jorratuko da. Ondorioak Londresen jasoko (2019ko azaroa). Bukatzeko, 2010eko urtarrilean, SIC erakundearen webgunean dokumentu bat argitaratuko da.

F- EUROPAKO BATZORDEAREN AURKIKUNTZA NAGUSIAK, EUROPAKO ESKOLETAKO BERRIKUNTZAREN BABESARI BURUZKOAK

Hezkuntza, Gazteri, Kirola eta Kultura, Eskola eta Eleaniztasunerako Batasunaren zuzendari nagusiak aurkeztu zizkigun Europako Batzordeak egin zuen eskola europarren berrikuntzaren babesari buruzko azterlanaren ondorioak (2017-2018).

Azterlan horretan eskola berrikuntzari buruzko ikerketa eta politika guztien berrikuspen zorrotza jaso da, eta Europaz kanpoko zenbait herrialdetako informazioaz osatu da (Kanada, AEB, Singapur, Australia, Japonia, Txina...). Halaber, azterlanak informazioa jasotzen du, hainbat testuinguruetan, eskoletako berrikuntza-prozesurako lagungarri edo oztopo diren baldintzei buruz.

Lehenik eta behin, azterlana berrikuntzaz ulertzen duguna definitzen saiatu zen:

- Eskolari dagokionez,, berrikuntza da eskolek duten gaitasuna testuinguru jakin batean berriak diren eta ikasleen emaitzak hobeto ditzaketen pedagogia- eta antolaketa-jarduera berriak txertatu eta mantentzeko.
- Hezkuntza-sistemari dagokionez, berrikuntza da sistemaren gaitasuna aldatzea eta hobekuntza finkatu, esperimentazioa sustatu, gainbegiratu, ebaluatu, akatsetatik ikasi, sareak eta harremanak babestu eta ikastetxeetan berrikuntza prestatu, ezarri eta mantentzen lagunduko duten hezkuntza-politikak diseinatzeko. Berrikuntza hainbat maila dituen fenomeno gisa ikusi behar da. Ezin da berrikuntzarik egin eskolak bakardadean lan egiten badu. Berritzailea eskola hori kokatuta dagoeneko sistema izango da. Berrikuntzak hezkuntza-sistemako maila guztietako eragileak inplikatu behar ditu.

Zerk bultzatzen du berrikuntza ikastetxeetan?

- Lidergo partekatu eta adoretuak.
- Irakasleria prestatu, arduratsu eta profesionalak.
- Eskola-garapenari buruzko ikuspegi partekatuak eta jarduera eta estrategia plan zehatzak.
- Ikasleen inplikazioak, aldatzea-prozesuko parte aktibo gisa.
- Lekuko komunitate eta elkarte zabalagoekiko jarrera irekiak.

Ondoren, bi argitalpen aurkeztu zituen:

A continuación, presentó dos publicaciones:



Lehena, “Better learning for Europe’s Young people: developing coherent quality assurance strategies for school education” adituek eginiko lan bat da, ikastetxeetako kalitate-bermeari buruzkoa. Hainbat Hezkuntza Politika aztertzen dira, ikastetxeetako kalitate-bermearen zenbait alderdirekin eta haiek inplementatzeko hartu behar izan diren erronkekin loturikoak. Herrialde bakoitzak erronka horiei. era egonkorrean, hezkuntzari buruzko ideia europar partekatu batez, aurre egiteko dituen moduei buruzko iradokizunak jasotzen dira ,eta baita, ikuspegi europar horretatik, hezkuntza-sistemaren hobekuntza efektiboa lortzeko moduari buruzkoak ere.

Dokumentuak ikasle guztiei hezkuntza-kalitatea eskaintzeko konpromisoa hartzen du , kalitatearen eta konfiantzaren hobekuntza-giroa ezarriz, eta ikasleen garapenari buruzko akordio neurtua lortzeko konpromisoa.

Ikuskaritzaren zereginak hobekuntzaren sustapena bermatzen du, ikastetxeko autoebaluazioen kalitatea kontrolatuz, baina jardunbide malguagoa ere har dezake, non gainbegiratze-zikloak ez diren hain zurrinak; horrela, eskola jakin batean premiazko jarduera-beharraren zantzuak ikusten direnean berehala heldu ahal izateko.

Ikuskaritzak gara dezake ikastetxe bakoitzaren berezitasunei egokituriko jardunbidea ere, ikastetxeek egiten dutenari buruzko banakako informazioa eta osatuagoa emanez. Aztertzaileari baino aholkulariari gehiago hurbiltzen zaion eredia gara dezake, elkarrizketa profesional ugari-koa, ikastetxeek besteen esperientzien bidez ikas dezaten.

Kanpoko kalitate-txostenek eskaintzen dituzten zenbait alde on eskolaren zerbitzuari eta emaitzei buruzko: iritzi aberatsagoak lortzen ditu; oreka sustatzen dute eskola-emaitzen, emaitza horiek posible egiten dituzten prozesuen kalitatearen eta ikastetxean ezarritako arduren banaketaren artean; azkenik, ikasleen garapenaren ikuspegi orekatuagoa sustatzen dute, sormenerako gaitasunean edo gizarte-gaitasunetan oinarritzen baitira.

Barne-ebaluazioaren lagungarri diren kanpo-ebaluazio prozesuak: kanpo-ebaluazioak buru dira kalitatearen, barne-ebaluaziorako baliagarri diren baliabide eta orientabideen adierazle-esparruaren garapenean; ikastetxeak sustatzen dituzte, ikastetxeetako autoebaluazioaren ebaluazioa ikastetxeetako gainbegiratze-prozesuetako elementu bereizgarri bihurtzean; ikastetxeak ikuskatze-taldeetan inplikatzeko “elkarteko kide” gisa, hezkuntza-kalitatearen kontrolean duten esperientzia sistema osora zabaltzeko.

Zer egin dezake sistemak eskolak eta irakasleek bultzatutako kalitateko kultura sustatzen duten baldintzak sortzeko?

- Hezkuntza-sistemaren bidez, ezagutza sortu eta erabiliz: eskolek hobetzeko ebidentziak jaso eta erabiltzea sustatuz, ondoren sistemak ezagutza hori jaso eta modu eta denbora baliagarrian ikastetxeei itzul diezaien.
- Gaitasunen garapena modu zabalean bultzatuz.
- Eragile guztien inplikazioa sustatuz.



4- BILTZARRAREN ONDORIOAK

Bilera oso interesgarria izan da, bai txostengileen eta parte-hartzaileen kalitateagatik bai landutako edukiarengatik. Parte-hartzaile guztiak ikuskaritza edo antzeko erakundeetako (zenbait herrialdetan ez dira ikuskaritzak, ebaluazio eta ikuskapenerako erakundeak baizik) partaide izateak gure esparruarekin zuzeneko lotura duten zenbait alderdiz lasaiago jarduteko aukera eman digu.

Antolaketa ezin hobea izan da, eta baita tokiko ikuskaritzak eginiko harrera ere.

Saio eta otorduetan, hainbat lankideekin informazioa eta esperientziak trukatzeko aukera izan genuen, eta, elkarrizketa horien ondorioz, aztertzea merezi duten proposamen zehatzak sortu dira.

- Zipreko ikuskaritzaren proposamena, gorago azaldutako KA1 prestakuntza-proiektua gauzatzeko.
- Jacqueline Baxter irakaslearen proposamena, ikuskapenaren eraginari buruz egiten ari den proiektu batean parte hartzeko.
- Luxenburgoko ikuskaritzako ordezkariaren proposamena, Euskadiko Eskola Kontseilua ezagutzeko.
- Herbehereetako ikuskaritzaren proposamena, gure V92 aplikazioa aurkeztu ondoren benetan harrিতuta geratu zen eta.

5- JOB SHADOWING

AURREIKUSITAKO DATA: 2019ko apirilean

IRAUPENA: igandetik larunbatera (5 lanegun)

Parte-hartzaile kopurua: 2 edo 3 ikuskari

Jarduera honen bidez, Irlandako Ikuskaritzak beste ikuskaritza batzuei lagundu nahi die euren ikuskatze-prozesuak eta txostenen prestaketa garatzen. Bisitaldi hauen bidez, Hezkuntza eta Eskuduntza Sailari aukera ematen zaio bere lana egiteko modua Europako beste ikuskaritza batzuekin alderatzeko .

Bisitaldiak Sailak egindako lanaren berri jasotzea eta ikuskariei eguneroko lanean laguntzea du helburu. Hona hemen bisitaldiaren funtsezko alderdiak: ikuskariaren eskuduntzen behaketa benetako egoeretan, elkarrizketa profesionala eta bi ikuskaritzen arteko jakintza trukaketa, eta ikuskaritza bisitariak behatutakoari buruz egiten duen gogoeta.

Asteko planak hitzaldiak, bilerak eta ikastetxeetara bisitaldiak biltzen ditu.

Ikastetxeak bisitatzen direnean (Irlandako Ikuskaritzak ikastetxeetara egiten dituen ebaluazio-bisiten barnean sartzen direnak), pertsona batek bakarrik lagunduko dio erreferentziazko ikuskariari; bisitak irauten duen bitartean , erreferentziazko ikuskariaren jokaera behatuko da, ikasgela barruan zein irakasleria jakin batekin, koordinatzaileekin edo bestelako taldeekin dituen elkarrizketetan. Erreferentziazko ikuskariak ikastetxeko arduradunekin dituen bileretan egongo da. Halaber, erreferentziazko ikuskariarekin egongo da, hark ikasleen lanak begiratzen dituen, edo eskolako dokumentazioa aztertzen duenean. Ikuskari-taldeak, ikuskatze-eguna amaitu baino lehen, bere aurkikuntza eta oharrei eta hurrengo eguneko plangintzari buruz egiten dituen eztabaidetan egongo da ,eta bizi eta behatu duenari buruzko ekarpenak egin edo argibideak eskatu ahal izango ditu. Batzuetan bisitariari aukera ematen zaie ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin, irakasleekin edo ikasleekin zuzenean hitz egiteko.

9- KONTAKTUA

Haxe da KANPO EKIMENAREN webgunea:

<http://www.euskadi.eus/informacion/dimension-europea-de-la-inspeccion-en-la-educacion/web01-a2hikus/es/>



Iradokizun-ontzia:
huisg004@euskadi.eus

HURRENGO ALEAN:
⇒ **Adrian Grayren UNDERSTANDING THE DEVELOPMENT OF SCHOOL INSPECTION IN EUROPE** ("Europako Ikuskaritzaren garapena eta printzipioak") izeneko liburua-aren edukia-

